2008-XI-07
Número **258.** zenbakia

ELA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Ainhize

Hainbat erreferentzi bukoliko sortzen ditu Ipar Euskal Herriko beste asko eta askok bezala Ainhizeko izenak eta baita ere bere kokapen eta inguru txundigarri bezain erakargarria. Oso errotuta dago, hegoaldekoen ikusmiratik, sentimendu bukoliko hau, norbait bere sorterritik urrun dagoenaren sortzen den herriminaren pareko.

Halaxe erreparatzen diogu sarritan Nafarroa Behereko bizimoduari, bertan hizkuntza eta kantu melodiko, artzain ohiturak, etxe-baserri dotore eta paisaia zoragarria mugatuko balira bezala bere errealitateak. Gaurkoan, ordea, Ainhize herriaren izenak badu bere muinean gehitu dion izanaren beste ezaugarri bat. HERRIA maiuskulaz eraikitzen eta ulertarazten duten egitasmoen artean, Laborantza Ganbararena bertan hartu du gorputza, Ainhizen, hain zuzen.

Abertzale artean badugu inork ukatzen ez dituen printzipioak, haranola: herri honek bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea; herritarrei eman behar zaiela hitza; herri bat garela eta abar, eta abar... Makina aldiz, batzen gaituzten ukaezinezko aldarrikapenak izanik, horietara hurbiltzeko planteamendu estrategikorik ezean, antzu geratzen dira eta diskurtsoak apaintzeko besterik ez dute balio, zoritxarrez. Horrek berak nahiko frustrazioa ekarri ohi du.

Bestelakoa esan dezakegu Ipar Euskal Herriko nekazariek gauzatu duten Laborantza Ganbaraz. Bertako errealitatetik abiaturik, nekazarien behar eta nahiei begira, nekazaritza jasangarri eta kalitatezkoa ekoizteko eredugarri den zerbitzua jarri dute laborarien eskura. Erakunde ofizialetik at, eta nahiz eta sektoreko aldarrikapena izan, nazio eraikuntzak bere edukietan ikusgaitasuna behar du, jendeak errekonozitu egin behar du. Horregatik, proiektu hau estrategikoa da; makina irakasgai ematen digu eta begizta arazten digu nolako lanak bideratu behar diren hitzak eta ekintzak uztartzeko. Ideiak eta burua argi izatea, erasoei aurre egiteko borondatea, ahal den eta atxikimendu handiena lortzea eta militantzia dira proiektu honen ezaugarriak. Bestelako proiektuek horrelako osagaiak edukiko balituzkete... Ainhize gehiago izango genuke.

langile 12.ekin kongresua

### Gerardo Pisarello, profesor de la Universidad de Barcelona, asegura que hay que repensar la democracia política y económica

# "LA GENTE DEBE LUCHAR POR LOS SERVICIOS SOCIALES QUE QUIERE"

**La Fundación Manu Robles-Arangiz organizó el 5 de noviembre una jornada de formación en Gasteiz bajo el título *Garantizar los derechos sociales: un reto sindical*. Intervinieron Gerardo Pisarello, doctor en derecho y profesor universitario, que, en la sesión de la mañana, reflexionó sobre los elementos para una reconstrucción de los derechos sociales y sus garantías y, por la tarde, habló sobre las políticas de inmigración en Europa y en el estado español. Mikel Noval, responsable del gabinete de estudios, por su parte, valoró la actuación del gobierno vasco en materia social durante la actual legislatural.**

Gerardo Pisarello comenzó su exposición destacando que los derechos sociales surgen cuando la clase dirigente se da cuenta de que su existencia es una manera de desactivar el conflicto social. "Las politicas sociales son vistas por la clase dirigente como antídoto contra la democratización radical", aseguró.

En su recorrido por la historia, Pisarello destacó el pacto que se produce tras la segunda guerra mundial. "Es un gran consenso basado en el miedo (a la guerra entre estados, al exceso soviético, a la democracia radical) lo que da origen al estado de bienestar"."Es un pacto desequilibrado –añadió– en el que el capital renuncia a tener beneficios ilimitados y dedicar parte de sus ganancias a sufragar esos derechos sociales. A cambio, los trabajadores renuncian a una democratización radical de la economía y la política. Obtienen seguridad social y derechos sociales a cambio de menor democracia".

Pisarello relató cómo en los años 60 surgen las primeras críticas por parte de la izquierda hacia ese gran pacto social que fue el estado de bienestar. Sin embargo, se impone la crítica contraria, la neoliberal, que asegura que la democratización económica y política han hecho ingobernable los países, por lo que hay que recortar derechos sociales y democracia. Margaret Thatcher y Reagan son puntas de lanza de un pensamiento que se fue extendiendo rápidamente. "Al mismo tiempo, con la caída del bloque soviético, las clases dirigentes dejan de tener miedo, sienten que tienen libre el camino para una regresión de caracter neoliberal".

Al analizar los derechos sociales en el estado español, Pisarello explicó cómo la transición política española coincide con los inicios de la crisis del estado de bienestar a nivel europeo.



"Se ponen las bases, por tanto, de un modelo de estado social débil con una democracia de baja intensidad. Se llevan a cabo ciertas políticas de universalización de derechos en sanidad o educación, sin embargo, en temas como el derecho laboral o la vivienda no se realizan apuestas sociales de peso". La crisis del débil estado de bienestar español se agudiza en los 90 con el ingreso en la UE y el impacto en las políticas sociales. "España se contagia de las obsesiones liberalizadoras del Acta Única y las obsesiones monetaristas de Maastricht: eso se traduce en reducción del déficit y reducción del gasto social, reducción de la inflación y contención de salarios".

**(Sigue en la página 2)**

### Iruñako delegatuen asanbladak egoera ekonomikoaren inguruan hausnartu eta Jose Elorrieta agurtu zuen azaroaren 7an

# HAUSNARKETA ETA OMENALDIA

**Bi izan ziren azaroaren 7an Iruñan egin zen delegatuen asanbladaren helburuak. Batetik egoera ekonomikoaz eta sozialaz hitz egiteko baliatu zen batzarra, eta egoera berri honetan ELAk dituen erronketaz hausnartu zen. Bestetik Jose Elorrieta idazkari nagusiari omenaldi xume bat egiteko baliatu zen ekitaldia. Elorrietak aurki utziko ditu sindikatuan dituen ardurak, eta Iruñako delegatuek ELAren alde egin duen lan handia eskertu nahi izan zioten. Izan ere, iragan astekoa izan zen Elorrietak Nafarroan egingo duen azken agerraldi publikoa.**

Mitxel Lakuntza, Nafarroako koordinatzailea, eta Mikel Noval, azterketa bulegoko arduraduna, izan ziren egoera ekonomiko eta sozialaren inguruan ELAk egiten duen analisia aurkezteaz arduratu ziren lagunak. Elorrietak, berriz, azken urteetan ELAk Nafarroan egin duen lanaz hitz egin zuen.

Azkenik, manifestazio batek Iruñako kale nagusiak zeharkatu zituen. Orotara 300 bat delegatuk hartu zuten parte.

**(2. orrialdean jarraitzen du)**

A la hora de abordar los retos de futuro de los derechos sociales y sus garantías, Pisarello defendió la necesidad de derechos sociales como el derecho al agua, al transporte público, a la vivienda digna, a la educación de 0-3 años, a la renta básica, o el derecho a la ciudad. Pidió, también, derechos sociales en el trabajo formal, frente a la Directiva Europea y la precarización en general, así como la reducción de jornada laboral, condiciones dignas o el derecho a la formación. Contra la flexi-seguridad, reivindicó nuevo garantismo laboral, y que supere lo laboral. También destacó el desafío de la igualdad y de la diversidad, y exigió derechos sociales universales, para todos, en cuanto personas, no solo en cuanto trabajadores. Derechos por el sólo hecho de residir. También exigió derechos sociales diferenciados y que no estigmaticen.

En otro momento destacó la necesidad de repensar la democracia económica y la democracia política. "A la gente hay que explicarle que el mercado capitalista genera exclusión, que es insostenible y que es incompatible con la generalización de derechos sociales. Hay que recuperar lo mejor del Estado social y reinvertarlo. Hay que repensar nuevas formas de disidencia, de desobediencia y conflictividad, nuevas formas de participación, autoorganización y fraternidad". Todo ello, matizó, con la consigna de que la garantía última de los derechos sociales es la participación de los usuarios en su defensa.

Ya en el debate, Pisarello criticó que buena parte de los sindicatos se han sumado a la lógica de la gobernabilidad y reivindicó la necesidad de un sindicalismo dispuesto a asumir el conflicto, que se ponga al servicio de los tiempos de los trabajadores y no de las instituciones. "UGT y CCOO han desertado de éso".

Finalmente, defendió la suma entre todos los movimientos que luchan por derechos sociales, la creación de nuevas alianzas y la conexión de esas luchas.

## ■ "EL 85% DE LAS NECESIDADES SOCIALES NO TIENEN COBERTURA PÚBLICA"

Mikel Noval, por su parte, realizó balance de la actual legislatura en materia de política social, calificándola de "muy pobre", y denunció que el 85% de las necesidades sociales no tienen cobertura pública. "La tasa de cobertura pública del tramo 0-3 es del 22%, la pobreza apenas se ha reducido en periodo de crecimiento económico, y ha aumentado la pobreza encubierta", desveló Noval, al tiempo que reclamó un autogobierno que mejore el bienestar de la gente.

Posteriormente, analizó las tres leyes que se encuentran en trámite parlamentario: la ley de Servicios Sociales, la ley de Familia y la ley de Garantías de Ingresos, aunque apuntó que muy probablemente sólo se apruebe la primera en la actual legislatura. Sobre la ley de Servicios Sociales, Noval criticó que se trata de un proyecto con mucha literatura y poca concreción, que apuesta por la privatización de servicios sociales y que deja de lado la garantía de los derechos y la participación social". Respecto a la ley de Familias, aseguró que no pasa nada si no se aprueba porque no supone ninguna novedad sobre lo que ya hay, y criticó que la administración apueste por dar ayudas económicas -insuficientes- por hijo o hija en vez de apostar por servicios públicos. Finalmente, en referencia a la ley de Garantía de Servicios Mínimos, calificó el proyecto de cicatero con la gente más necesitada y de tratar como delincuentes a los perceptores de la misma.

## "LAS POLÍTICAS MIGRATORIAS TRATAN DE EXTENDER EL MIEDO AL CONJUNTO DE LA CLASE TRABAJADORA"

Pisarello abrió su intervención sobre las políticas migratorias de Europa y el estado español asegurando que si en un contexto de contrareforma neoliberal como el que vivimos la conflictividad no es mayor es gracias a la existencia de un enorme ejército de reserva como es la población trabajadora migrante.

Pisarello denunció que el concepto de ciudadanía en la UE es excluyente –es europeo el que es ciudadano/a de un estado nación miembro- y deja fuera a todo ese ejército de reserva, que es el que sostiene el modelo.

Pisarelo explicó cómo el Tratado de Maastricht supuso la libre circulación de trabajadores de los estados miembros, de las mercancías y del capital, y, al mismo tiempo, un control estricto de una nebulosa que inquietaba al modelo: terroristas, tráfico de drogas y emigrantes ilegales. "Se empieza a construir la idea de que el trabajador extranjero es una amenaza, y una vez considerado como amenaza se le puede privar de derechos sin problemas", denunció.

Siguiendo con la evolución de las políticas migratorias en el tiempo, este profesor universitario detalló cómo en los 90 se afronta la cuestión migratoria como un problema de orden público y de seguridad, "porque el modelo necesita generar ilegalidad, una ciudadanía jerarquizada de personas con diferente estatuto". De esta manera, habría cuatro categorías de personas: en primer lugar, el ciudadano nacional con derechos, que tendría la ciudadanía plena; en segundo lugar, los inmigrantes deseados de manera temporal, con una ciudadanía devaluada, amenazada y sometida a una serie de controles que le recuerdan que es un emigrante; en tercer lugar, estarían los emigrantes que no son deseados, que no pueden incorporarse al mercado formal de trabajo, pero necesarios como mano de obra barata; y, en cuarto y último lugar estarían los emigrantes ni deseados ni necesarios y que son directamente excluidos: refugiados, familiares... Se trata de que esta gente ni entre ni se la deje salir de sus países de origen o paso para llegar a Europa".

Pisarello explicó, también, cómo en este contexto se crea Frontex, organización para el control de las fronteras exteriores. "Sin embargo –destacó- el objetivo de estas políticas no es cerrar sin más las fronteras. Si Europa se blindara el sistema se hunde porque necesita una fuerza de trabajo permanentemente expuesta a la discriminación, racismo y sexismo". "Más que blindar Europa –prosiguió– hace falta excluir de manera selectiva a parte, e incluir a otra de manera subordinada. Se trata de fijar a los sectores trabajadores en una situación de vulnerabilidad y extender el miedo entre el conjunto de la clase trabajadora".



A la hora de analizar las políticas migratorias del estado español, Pisarello calificó de aberración que no se reconozca a los emigrantes el derecho a la libre circulación ni a la reagrupación familiar.

En otro momento de su intervención, este profesor universitario afirmó que "la Directiva de Retorno es ideal para irtroducirla en un momento de crisis como el actual: el mensaje es que no podemos acoger a todos, que es hora de expulsar, y plantea medidas terribles como la de internar a una persona hasta 18 meses en un centro por un mera falta administrativa como es no tener papeles". Pisarello aseguró, también, que esa directiva y la de la jornada laboral de 65 horas son dos cara de la misma moneda. "Son instrumentos jurídicos para atemorizar a la mano de obra, al conjunto de la clase trabajadora".

Una vez hecho el diagnóstico, Pisarello aportó su punto de vista sobre qué hacer ante esta situación. Pisarello apostó por la creación de un espacio público europeo internacionalista porque "su concepción de Europa no es la nuestra", al tiempo que aseguró que hay que repensar la idea de la libre circulación y la idea de ciudadanía."Hay que repensar la idea de la libertad de circulación en su triple dimensión: el derecho a quedarse en el lugar en que se vive, el derecho a huir de condiciones insoportables de vida, y el derecho a poder quedarse con lo propio,o sea, el derecho a la reagrupación familiar". También hay que repensar la idea de ciudadanía –añadió– una ciudadanía de residencia basada en la idea de que los que habitan en un lugar son de ese lugar".

Finalmente, Pisarello se mostró partidario de no poner barreras a la emigración. "Hace falta descontrol. No van a cambiar las cosas en el mundo mientras no veamos a los emigrantes aquí. El problema no se soluciona si no cambia el modelo productivo y las relaciones Norte-Sur".




Mitxel Lakuntza destacó que el origen de la crisis financiera está en la desregulación y la falta de control de los mercados financieros. Por ello criticó a quienes dicen que *todos tenemos que apretar el cinturón.* "Las causas de esta situación nada tienen que ver con los salarios ni con el gasto social. Van a intentar que paguemos el plato que nosotros no hemos roto".

El responsable de ELA en Navarra considera que esta situación evidencia el fracaso del libre mercado, y reclamó la necesidad de cambiar de sistema. "Por encima del dinero tienen que estar las personas. Tenemos que defender un nuevo sistema en el que primen valores como la justicia social, la igualdad y la solidaridad. Eso solo se hace potenciando el sector público como garante de los derechos de todos y todas".

Por su parte Mikel Noval exigió medidas concretas, entre las que destacó el aumento de salario y un mayor gasto social. "Nos están robando la cartera. Por lo tanto, parece razonable exigir lo que nos han quitado. Además debemos exigir un mayor gasto social, hay margen para generar más derechos sociales".

## "SÓLO SE PREOCUPAN DE LOS FONDOS PÚBLICOS"

En opinión Mitxel Lakuntza el IV Plan de Empleo elaborado por el Gobierno de Miguel Sanz con la participación de los sindicatos UGT y CCOO y la patronal CEN no aborda las necesidades reales en materia de empleo, y no hace ninguna valoración sobre el grado de cumplimiento de anteriores planes. "No es de extrañar, ya que dichos planes no se han cumplido, ni en la tasa de empleo ni en la temporalidad, habiéndose producido un empeoramiento con respecto al año anterior. El plan se hace únicamente con aquellos que se preocupan más de la gestión de los fondo públicos que de solucionar los problemas del mercado laboral".

# "ELAREN ETORKIZUNA ESKU ONETAN DAGO"

**ELAko idazkari nagusi Jose Elorrietak G*aurko sindikalgintzaren erronkak* hitzaldia eskaini zuen azaroaren 6an Martin Ugalde Foroan. Elorrietak ELAk azken hamarkadetan izan duen bilakaeraren inguruan hausnartu zuen, eta sindikatuan dituen ardurak uztear dagoen honetan, gure sindikatuaren orainaz eta geroaz ere mintzatu zen.**




Agur kutsua dauka hitzaldiak. ELAren XII Kongresua aurki egingo da eta beste idazkari nagusi bat izango da. Azken 30 urteetako ibilaldia aipatuko dut. Nondik hasi ginen eta nora eta nola heldu garen gauden lekura.

Hirugarren belaunaldiko militante sentitzen naiz. Lehenengo belaunaldia ELAren sorreratik Errepublika garaira doana da. Bigarrenak Errepublika, gerra eta frankismoaren zati handi bat harrapatu zituen. Hirugarrena 60. hamarkadatik 2000. urtera bitartean kokatzen da; laugarrena hortik aurrerakoa.

Hirugarren belaunaldiko militanteak frankismoaren momentu desberdinetan sartu ginen ELAn, eta gehiengoak, talde berri bat osatuz, hirugarren kongresutik aurrera hartu genuen sindikatuaren gidaritza. Hau da, 1976tik aurrera.

Talde gaztea osatzen genuen, esperientzi handi gabekoa, eta ez ginen hainbeste. Gure indarraren muina, garai hartan ere, kohesioa izan zen.

**Kohesioa non kokatzen zen?**

1.- Sozialistak ginen, eta ideia hau hirugarren Kongresuan oso zehatz jaso genuen, konplexurik gabe, ELA barruan aldaketa ideologiko sakon bat egiten zela jakinda. Izan ere, ELA, historikoki, pentsamolde kristautik zetorren.

2.- Oso garbi ikusten genuen ere alderdi politikoengandik independenteak izan behar genuela. Independentzia ideologikoa eta funtzionala izan behar zen. Ez bakarrik itsura mantentzeko, benetan politikoki independenteak izateko baizik.

Karguan bateraezintasuna beharrezkoa ikusi genuen horretarako, baina garrantzikoagoa zena: koadro militanteak, gugandik hasita, alderdi politikoekin loturarik ez izatea. Ez ginen apolitikoak, baizik eta politikan autonomoak izatea erabaki genuen.

3.- Hasieratik ere pentsatzen genuen sindikatua independentea izan behar zuela ekonomikoki, kuotaren bidez. Adibidez, CCOOrekin konparatuz, gure kuota lau aldiz garestiagoa zen. Kuoten bitartez asmoa langileentzat beharrezkoak ziren zerbitzu batzuk ematea zen: zerbitzu juridikoak, greba kutxa...

4.- Antolakuntzan lehentasuna sindikatu konfederal indartsu bat osatzea izan zen. Egun osoko liberatuen beharra planteatu genuen, ELAk ordaindutakoak, ez enpresen soldatapean.

Eredu sindikalaren apustua klasikoa izan zen. Ez ginen originalak, Europako sindikatuen erreferentzia hartu genuen.

Lehentasuna elkarrizketa sozialari eman genion, batez ere patronalarekin, ahaztu gabe interesen gatazka bat, klase gatazka bat zegoela horren azpian, baina, aldi berean pentsatuz arazoak bideratzeko bi aldeetako harreman sendoak premiazkoak zirela. Eta harreman horiek *instituzionalizatu* behar zirela, arau batzuk finkatuz eta errespetatuz.

Politikan apustua Estatutuaren aldekoa izan zen, nahiz eta hasieratik ikusi bere hutsuneak arlo sindikal eta laboralean, eta, baita ere, lurraldetasunaren zatiketa. Pentsatzen genuen gradualki posible zela puntu horretatik hasita gure autogobernua hobetzea. Ez bakarrik eskumenen aldetik, baita ikuspegi nazional batetik ere.

Gasteizeko IV Kongresuan, 1979. urtean, gure apustu sindikala eta politikoa gauzatu genituen. Eguneroko lanean, Trantsizioko haserako urte horietan, ia lehentasun bakarra proiektua bermatzea eta sendotzea izan zen.

Hamarkada eman genuen, bereziki, negoziazio kolektiboa defendatuz. Lan asko egin genuen arlo horretan. Zorionez, hori eginez guretzako premiazkoa zen esparru bat irabazi genuen.

Ezin dugu ahaztu ere 80garren hamarkadan industria krisiak harrapatu gintuela bete-betean. Ia 15 urte iraun zuen krisiak. Urte gogorrak izan ziren, industriaren birmoldaketaren esperientzia benetan ahaztu ezina izan zen.

1986an, ELAren 75. urtemuga ospatu genuenean, oinarrizko gauza batzuk lortuta genituen. Lehenengo sindikatua izatera iritsi ginen EAEn, eta Nafarroan, emaitzak xumeagoak izan arren, nabaritzen genuen posible zela ELAren sindikalismoa garatzea.

Afiliazioan urrats garrantzitsuak emanak genituen ordurako autonomi ekonomikoaren bidean. Negoziazio kolektiboan, hitzarmen gehienak, sektore publikoak barne, hemen negoziatzen ziren, salbuespenak salbuespen.

## HIRU ALDAKETA

Hortik aurrera aipatu beharrezkoak dira hiru aldaketa. **Lehenengo aldaketa** barne aldaketa izan zen; beste biak 'kanpotik bultzatutakoak'. Barne aldaketa 1988an bideratu zen. Zuzendaritzan aldaketa egin genuen. Ia militante denek ikusi genuen beharrezkoa zela haserako identitatea berreskuratzea. Oso-osorik, ez mugatzea gure konpromiso sindikala lan arlora. Proiektua arlo politikoan zein arlo sozialean zabaldu genuen. Beti ere, gure autonomiarekin eta langileen ikuspegitik begiratuta.

**Bigarren aldaketa**, zentzu batean behintzat, kanpotik etorri zen: estatutismotik soberanismora pasatzea. Barne esperientziak erakusten zigun Estatutua ez zela tresna egokia gure proiektu nazionala garatzeko: eskumen gutxi, falta direnak betirako, dauzkagunak oso mugatuak eta beti estatuaren eskuetan. Ikusi genuen estatutismoaren arazorik nagusiena zela apurketarik gabe ez dela posible marko berri batera pasatzea.

Aldaketa politikoa bost urtetan gauzatu zen. 1992an egin genuen dokumentu batean ikusi zen aldaketaren hasera. 1993an LABekin harremanak hasi ziren eta 1997an Gernikan argi esan zen ELA non zegoen. Esan genuen Estatutua hilda zegoela, borroka armatua soberan eta kaltegarria zela abertzaleontzat, eta, azkenik, azpimarratu genuen soberanisten indarrak biltzearen beharra.

Aldaketa emateko oso baliagarria izan ziren 1994tik hasita LABekin izan genituen harremanak. Harremanak oso aberatsak izan ziren, baita gure organizazioak ikusteko norantz joan behar ziren aliantza berriak arlo sindikalean, sozialean eta politikoan.

**Hirugarren aldaketa** ere kanpotik etorri zitzaigun. Lehen aipatu dudan eredu sindikalarekin zer ikusia dauka aldaketa honek. Neoliberalismoaren ondorioak ikusita, neoliberalen jokoa ikusita, ez bakarrik enpresariena, baita ere Hego Euskal Herriko erakundeena, konturatu ginen beharrezkoa zela negoziazio kolektiboaren edukiak, dinamikak eta tresnak aldatzea.

Elkarrizketa sozialaren ordez ekintza sindikalak hartu zuen lehentasuna. Borrokaren aukerak eta beharra azpimarratu genuen.

Eredu sozial baten aldeko konpromisoa garatu genuen, bereziki, neoliberalismoaren aurka borroka sindikala eta soziala uztartu ahal direla ikusita.

Aldaketak autonomia politiko eta ekonomikoaren eskutik etorri dira, eta esperientzian oinarrituta izan dira. Egindako bideak ez dauka atzera bueltarik.

Garrantzitsuena da aldatzeko askatasuna izan behar dela. Aldatu gara bai, baina, beti ere, gure proiektuari fideltasuna erakutsiz. Gure erreferentzia bakarra euskal langileria da.

## ETORKIZUNA ESKU ONETAN

Konturatzeke 2000. urtera heldu gara. Era argian esateko: hirugarren belaunaldiko azken ekarpena koadroen eta zuzendaritzaren aldaketa garaiz planifikatzea izan da. Hirugarren belaunaldiak laugarrenari pasa dio lekukoa. Oso aberasgarria izan da azken urteak belaunaldi berri honekin bizitzea. Laugarren belaunaldiak ez du sindikatua esperientziarik gabe hartzen; heldu garen lekura iristea eurei esker izan da. Azken urteetako ekarpen nagusia beraiena izan da, benetako zuzendaritza beraiena izan da.

**Non gaude, nora heldu gara?**
ELAn hiru erronka nagusi ditugu: negoziazio kolektiboa, hau da, ekintza sindikala indartu, gizarte sozialean eredu aurrerakoia aktiboki bultzatu eta prozesu soberanista baten alde lan egitea. Egoera ekonomikoa ez da erraza. Krisialdia dela eta ez dakigu zer gertatuko den epe laburrean. Kezkatuta gaude etorkizunari begira: politikoek onartuko al dute ekonomiaren ardura hartzea? Hori da gure galdera nagusia.

Heldu da garaia aberatsei zergak kobratzeko, baita Euskal Herrian ere. Kontzertuari eta Konbenioari esker aberatsek ez dute zergarik ordaintzen. Hau da eztabaida nagusia. Eztabaida horren ondoren arlo publikoaren papera berreskuratu behar da, bai gastu sozialean, bai inbertsioetan. Ekonomia politikaren esku jartzeko ordua da. Finantzen mundua kontrolatzeko ordua da. Ekonomi erreala deritzona beste baldintzetan bideratzeko ordua da.

Zoritxarrez, Jaurlaritzaren datorren urteko aurrekontuak ikusita, ez dago baikor izateko motiborik. Propaganda bai, itsura bai, baina zergen bidez zenbat diru behar den eta nortzuk ordaindu behar dutenen inguruko hitzik ez. Krisi ekonomikoa zabaltzen bada, kezka nagusia da zer gertatuko den langabeziarekin, lan baldintzekin, soldatekin.

Politikan ere une kritiko batean gaudela esan daiteke. Estatuek garbi daukate medio guztiak erabili ditzaketela prozesu soberanista oztopatzeko, lege antiterrorista mugarik gabe erabiliz, esate baterako. Borroka armatuak jarraitzen du, etorkizunik gabe, baita ere abertzaleon lan bateratua oztopatuz. Neoestatutismoa berriro indartsu ageri zaigu. Lehenbailehen, horretarako prest gaudenon artean, indar soberanisten metaketa berriro indartu behar da. Metaketa zibila, noski. Eta indar metaketa horretan eredu sozialak, langileekin lotutakoak, erreferentzia nagusia izan behar dute.

Badaukagu zer egin, eta iruditzen zait badakigula nola egin. Lana, denbora, pazientzia eta aliantzak uztartu behar ditugu. ELA noren eskutan dagoen ikusita benetan baikorra naiz, ondo ezagutzen dudalako laugarren belaunaldia. Zorionez, ELAren etorkizuna euren eskutan dago.

astekaria

## Irakaskuntzako arduradun Nerea Larrinagak ekiparazioa exijitzen die patronal eta administrazioari

# GREBA ITUNPEKO IRAKASKUNTZAN



**ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek sektoreko langileen lan baldintzak homologatzeko akordio berri baten negoziazioa aldarrikatzen dute. Nerea Larrinagak salatzen duenez Eusko Jaurlaritzak langileei dagozkien gaiak ikastolen eta kristau eskolen patronalarekin baino ez ditu negoziatu nahi. Egoera honi erantzun irmo bat emateko asmoz, datorren azaroaren 12rako greba deitu dute ELAk, LABek eta STEE-EILASek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetan; orotara 11.600 irakasle eta beste 600 langile daude deituta grebara.**

**-Zeintzuk dira greba egun honetako aldarrikapen nagusiak?**

-2008 eta 2009ko negoziazio kolektiboko lehentasunezko helburuak honako hauek dira: irakasle eta ez-irakasle den langileria %100ra homologatzea; %95ko soldaten parekatzea gainditzea; irakasleagoaren lan jardunaldia murriztea eta irakasle ez den eta Haur Hezkuntzako 1go zikloko langileriaren soldata eta lan baldintzen homologazioa.

Gure iritziz, helburu hauek lortzeko Administrazioaren parte hartzea beharrezkoa da. Era berean zehaztu beharra dago finantziazio eredu berri honen finkapenean zeintzuk diren ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta kontrola egiteko moduak argi geratu behar direla pentsatzen dugu. Dirudienez, Administrazioa prest egon liteke finantziazio eredu berri honetarako patronalekoek dituzten eskaeren zati bat onartzeko. Soldataren homologazioan dagoen %95ko muga apurtzea ez omen da aintzat hartzen. Administrazioaren erantzuna langileoi dagozkigun gaiak tratatzeko eta ezagutzeko sindikatuok egin ditugun eskaerei honakoa izan da: 'Gai hori patronalarekin tratatuko dugu, ez sindikatuekin'.

**-Beraz, administrazioak alde soziala ez du kontutan hartzen.**

-Une larrian gaude. Gauden egoera larria da, baita administrazioak eta patronalak erakusten dituzten jarrerak eta planteamenduak ere. Horregatik erantzun sendoa ematea eskatzen dugu. Sare pribatuaren finantzaketaren igoerak itunpeko irakaskuntzako langileon baldintzak hobetzeko balio beharko luke. Ez dugu onartzen Hezkuntza Sailaren jarrera eta pentsatzen dugu une egokia dela lan baldintzak homologatuko dituen akordio berri baten oinarriak finkatzeko.

*"Exigimos la negociación de un nuevo acuerdo para homologar las condiciones de las trabajadoras y trabajadores del sector"*

## Labur Breves

### ● Contra la construcción del puerto exterior de Pasaia

El 7 de noviembre se celebró una nueva reunión de la junta del Puerto de Pasaia. ELA manifiesta una vez más su oposición a la construcción de un nuevo puerto en la cala exterior del Monte Jaizkibel. En opinión de Xabier Perez Herrero, responsable de ELA en Oarso-Bidasoa, no hay ningún motivo económico que justifique esta obra. Además denuncia el gran impacto que tendría la obra en el medioambiente. "No se ha elaborado la Evaluación Conjunta del Impacto Ambiental, ni se ha analizado en ningún documento oficial las consecuencias medioambientales. El Plan Estratégico apenas dedica una página a las cuestiones medioambientales -sólo para frivolizar su fuerte impacto-, siendo éste un aspecto clave del mismo".

Perez Herrero denuncia que "se ha negado un debate social respecto a la necesidad de abordar una obra tan importante. Las instituciones que lo apoyan no dan argumentos y no entran a discutir las razones ofrecidas por quienes rechazan el proyecto. Exigimos la apertura de un debate serio, riguroso y participativo. Sólo bajo esa premisa y la correspondiente consulta ciudadana posterior podríamos hablar de un proceso democrático y participativo".

### ● En defensa de la negociación colectiva en Tubacex

Alrededor de 350 personas se manifestaron el 6 de noviembre por Laudio en defensa de la negociación colectiva en Tubacex y en protesta por la decisión de la dirección de Tubacex de provocar la adhesión individual de la plantilla a su oferta, en un claro intento de individualizar las relaciones laborales. Los manifestantes también denunciaron la actitud de STAT y CCOO, sindicatos que guardan un silencio cómplice ante los ataques de la empresa a la negociación colectiva y solo hablan para sacar la cara y alabar las bonanzas de la propuesta de la empresa.

### ● Movilizaciones de las trabajadoras de Sabeco de Rentería

Las trabajadoras de los supermercados Sabeco de Rentería continúan en huelga indefinida para exigir que se les aplique el convenio de alimentación de Gipuzkoa, que supone un incremento salarial del 27% sobre el convenio estatal. El pasado 7 de noviembre las huelguistas se manifestaron frente a la sede central de Sabeco en Bilbao, y recalcaron, una vez más, que la huelga va a seguir hasta que se alcance un acuerdo.

### ● Apoyo a los huelguistas de Guibema

Más de 300 personas participaron el 7 de noviembre en Elorrio en una manifestación en favor de los trabajadores/as de Guibema en huelga desde el 5 de mayo. ELA quiere denunciar los reiterados ataques que están sufriendo las siete personas que están en huelga, tanto por parte de la dirección de la empresa como por parte de los cinco esquiroles que continúan trabajando.




**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria
Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00
www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207